

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Letra xehetzen



Ezkerretik eskuinera, erromatar letra larriz idatzitako testua; Freising-eko eskuizkribua, minuskula karolingioaren adibide esanguratsua; eta Giambattista Bodoni, tipografia modernoaren aita.

AKISGRAN, 781. Yorkeko Ealhwine idazlea Karlomagnoren gortera iritsi zen. Erregeak eskola bat irekitzeko asmotan ekarri zuen ingelesa eta, azkenean, hamabost urte eman zituen bertan, karolingiarren berpizkunde kulturalaren bultzatzaile nagusietako bilakatuta. Tarte horretan, besteak beste, letra minuskula karolingiarra garatu zuen, ordura arte erabiltzen zena baino txikiagoa eta biribilagoa, gaur egun letra xehe etzantzatz joko genukeena.

Erromatarrek letra larriz idazten zuten. Letren diseinua simetrikoa zen, geometria euklidearrean oinarritua. Mendebaldeko Erromatar Inperioaren amaierara arte ez ziren hasi kurtsiba erromatar modura eza gutzen den hizki moldea erabiltzen. Idazkera hori ez zen zabaldu, baina mende batzuk beranduago eragina izango zuen Eanwhilek letra xehe karolingiarra asmatu zuenean. Hala ere, horretarako oinarritzko faktorea teknologia izan zen: Karlomagnoren gortean, aurretik kargatzen ziren arkatzak eta garai hartako paperik fin eta leunena –animalia jaioberrien larruz egindako Vitela papera–, erabiltzeko aukera izan zuen Eanwhilek. Idazteko modu errazago hura berehala zabaldu zen kultur maila altuenekoen artean. Baina XI. mendean baztertu egin zuten letra minuskula.

XV. mendean veneziar errenazentistek tipografia berri bat nahi zuten euren errepublikarako, eta Aro Klasikoa berpizteko. Horregatik ipini zioten *lettera antica* izena, eta horregatik aukeratu zuten kurtsiba erromatarra eredu moduan. Hori zen asmoa, behintzat. Baina izkribu erromatarrek eta karolingiarrek nahastu zituzten, eta azkenean Ealhwinek asmatutako minuskula zabaldu zuten. Hortik aurrera Europa osoan letra larriak paragrafoaren hasiera markatzeko erabiltzen hasi ziren eta testua letra xehez idazten zuten. Eredua aukeratzeko izandako akatsa deskubritu zuten halako batean, baina tipografia horrek zabalitzen jarraitu zuen. Idazteko materiala garestia zen eta letra horrek espazio gutxiago behar zuen; gainera eskuz idazteko askoz azkarragoa zen. Inprenta iritsi zenean ere abantaila handia eskaintzen zuen *lettera anticak*: tinta asko aurrezten zen soilik karril erdia erabiltza.

XVIII. mendearen hasieran lehen estilo liburuak sortu ziren. Europako herrialde bakoitzak modu batera erabiltzen zituen letra xeheak eta larriak, eta arauak bateratzeko beharra zegoen. Mende horretan bertan, Giambattista Bodonik letra xehea garatu zuen, Gracia tipografia sortu arte. Horixe izango zen gaur egun erabiltzen ditugun tipografia askoren oinarria, besteak beste, Times eta Garamond. Testu hau, esaterako, Garamond letraz idatzita dago. ■

ARRASTOAK

CRISTOBAL BALENCIAGA

diseinatzailearen biografia idatzi du Lesley Ellis Miller-ek. Idazleak getariarraren nagusitasuna errebindikatu nahi du Pariseko moda munduan. Pariseko erreginatzat Coco Chanel jotzen bada ere, lan berri honek dio Balenciaga izan zela modaren errege 1954a arte, Chanelek haren tokia hartu zuen arte hain zuzen.

Horrez gain, gipuzkoarrari eragin zioten lanak ere aztertu ditu Millerrek; horien artean, Francisco Zurbaranena nabarmendu behar da. Balenciagaren gaueko soineko askok XVII. mendeko margolariak fraideak marraztean irudikatu zituen bolumenak dituzte oinarri, beheko argazkietan ikusten den moduan.



Goian, Balenciagaren soinekoa; haren azpian, Zurbaranek margotutako fraidea.